



Pinondo Etxeari agur esan eta Laubideta kalera etorri gara

Urrian bulego berria estreinatu dugu Berbaroko lantaldeak. “Oktogonoa” deitu izan zaion eraikinean aurkituko gaituzu orain: Behargintza eta Hizkuntza Eskolaren artean

Gure bulegotik ez da dagoe-neko Mañaria erreka hotsa entzuten, urrundu egin gara neguan bete-bete ikusten genuen eta udan freskura ematen zigun erreka horretatik. Pinondo Etxeak egitura arazoak dituela-eta, udaberriko itxialdiaren ostean ezin izan dugu, tamalez, urte luzez gure etxea izan den hartara bueltatu. Intxaurrondon, “Oktogonoa” deitu izan zaion eraikinean gaude orain, udalak bertan utzitako lokalean. Urrian estreinatu dugu bulego berria, eta ateak zabalik dituzue betiko moduan!

Etxetik eta AEKtik lanean

Zientzia fikziozkoa dirudien urte hau azken-aurreko hi-

labeteen sartu zaigu. Konfinamendua eta telelana lako berbak hitzetik hortzera ditugu martxoaz geroztik, eta giza harremanak murrizteko esan digute, denon onerako eta elkar zaintzeko. Berbarotar guztiak ondo egotea espero dugu guk, eta, ahal bada, umoreari eustea. Animo! Udaberriko itxialdian jende askok egin behar izan genuen lan etxetik, eta telelanean ibili eta gero, gure betiko bulego-
ra ezin joanda geratu ginen Berbaroko lantaldeko kide gehienok (Amankomunazgoko euskara teknikaria izan ezik, beste guztiok). Gaitza izaten da horrelakoetan lan koordinatua egitea, eta udaleku sasoia bertan zen! Eskerrak

AEK-k Abarrak euskaltegi txokotxo bat utzi zigun. Lantaldeko kide batzuk hantxe izan gara maiatza amaieratik urri hasierara arte, eta lerro hauetatik AEK-ko lagunei eskerrak eman gura dizkiegu bihotz-bihotzez, bertan lan egiteko aukera emateagatik. Biba zuek!

Intxaurrondon, gure kabi berria

Bulego berrira ohitzen ari gara orain. Esan bezala, Intxaurrondon gaude, Laubideta kalea 6-C da gure helbide berria. Behargintzara, Helduen Hezkuntzarako Institutura eta Oinarrizko Lanbide Institutura sartzeko atetik ailegatuko zarete guregana. Oktogono

itxurako eraikinean, Pinondo-ko bulegoetan geunden zazpi lagunak gaude: haur eta gazte arloko teknikariak, kudeaketa eta administrazio langileak eta Durangoko Udaleko euskara zerbitzukoak.

Kabi berritik, udazkenari eta neguari ahalik eta modu erakitzaileenean begiratu guran gabiltza. Ez da erraza gure proiektuak gaur egungo egoerara moldatzea, baina ilusioz ari gara lanean, ahalik eta ekimen gehien aurrera ateratu guran, betiere segurtasun neurriak zainduta. Azaroko Berbarotarra honetan gure egitasmo eta erronken berri izango duzu. Eta, edozer gauzatarako, badakizu, ateak beti izango ditugu zabalik!

Euskara errefortzuen beharra handitu den garaiotan, Gurean Euskaraz saioak



Badira, gurera, Durangaldera etortzen diren ume etorkinak, egoera latz honetan ere heldu dira baten batzuk.

Martxoan hasi zen konfinamenduak hainbat arrakala sortu ditu, eta horietako bat arrakala linguistikoa da. Hainbat eta hainbat ume eta gaztek ez dute auke-

rarik izan ikasketekin behar bezala aurrera jarraitzeko, beste batzuekin erlazioatzeko... beharrezko erreminta falta zutelako... Zein izango ote da erreminta hori? Euskara da.

Gaur egun, Durangaldeko ikastetxe denetan D eredia da nagusi, eta nahiz eta

zentroetan euskara eta euskaraz ikasi, ez da nahikoa izaten.

Zorionez eta kostata, aurtengo ikasturtean ere posible izan da aspalditik gure programan dugun "Gurean" proiektuarekin hasia. Zornotza, Abadiño eta Berrizera etorri berri diren haur eta gazteak hasi dira euskaraz eta euskararekin gozatzeko. Espero dugu, laster, beste herri batzuetan ere beldurra alde batera utzi, eta aukera bat ematea gaztetxo hauei. Protokolo guztiak jarraitzen ditugu eta arriskua txikia da.

Beraientzat oso aberasgarriak dira saio hauek, ez bakarrik euskaraz jolasteko, baizik eta beraien egoera berdinean dauden umeak ezagutzeko eta eskolatik kanpora euskaraz bizi daitekeela ohartzeko. Ume horientzat ez da batera erraza arrotza zaien herrialde batera heltzea, guztiz ezberdina den hizkuntza batekin topo egitea, eta sarritan galduta sentitzen dira. Horregatik, "Gurean" proiektuak bere aletxoak jartzen du egunez egun, tarte batez beraiekin enpatizatzen, jolasteko eta euskaraz eta euskal kulturaz zipriztintzeko. Eta, bestalde, haur eta gaztetxo hauek beraiena jartzen dute guk euren lurralde, kultura eta tradizioak ezagutzeko; horrela guztiok ikasten dugu eta une txiki batez bada ere, etxean sentitzen gara.

Euskarazko literaturari arnasa emateko, HLA

Arnasestuka ekin dio ibilbideari Haur Literatura Aretoak, egunotan kultur programazioan gabiltzanok horrela baikabiltza, hasi eta aldatu, birpentsatu eta ekin. Osasun eta babes neurri guztiak hartuta, Durangon egin dituen lehen pausoak aretoak, eta ondo-bidean Zaldibar, Zornotza eta Berriztik igaroko da datozen asteetan. Helburu bakar baina sendoarekin, Durangaldeko ikastetxeetako ume eta gaztetxoek, irakurzaletasunaren eta euskarazko kulturaren bitartez, gozatu eta disfrutatu dezaten. 6 eta 12 urte bitarteko 4.000 ikasle in-

guruk hartuko dute parte aurtengo Haur Literatura Aretoan. Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako (EHGL) argitapenak ezagutzeaz gain, hainbat kultura diziplinako sortzaileekin egon eta proiekturako beren-beregi sortutako sorkuntza lana ezagutzeko aukera izango dute; besteak beste, Sarioa Bikandi ipuin kontalaria, Traperuen Oholza Kolektiboa antzerki taldea, eta Peru Magdalena idazle eta sortzaileen eskutik.

Arnasa falta dugun honetan, kultura arnasgune segurua delako.



#KLAK! egiteko beharra

Ikasturte honetarako hainbat ideia eta proposamen genituen batxilergoko ikasleei aurkezteko, baina erdiak koronabirusak izorratu ditu. Izan ere, paperean plangintza itxuroso bat garatzea ez da horren zaila; bai ordea praktikara eramatea egungo baldintza, protokolo eta mugekin. Zentzu honetan, garrantzitsua da aldaketen aurrean egokitzeko gaitasuna izatea eta zurrunezi ez jokatzeko, eta #KLAK! egitasmoak, hain justu, abildade horiek baditu.

Abendura bitartean hiru ekintza ditugu eskuarte. Berrikuntza nagusia parte hartzeko moduan topa dezakegu. Orain arte, talde motoreak eratu izan dira ikastetxeetan, dinamikak aurrera ateratzeko ardurarekin. Sistema honen eraginkortasun eta funtzionamendu eskasa ikusirik, hemendik aurrera, soilik gustuko ekintzatan izena emateko aukera izango dute gazteek; besteak beste, Egunean Behin galdera-erantzunen jokoan edota euskararen aldeko abesti baten bertsio grabaketan.

Gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra, 15 egunez, hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamikari ekingo diogu



Euskaraldiko lokala lehenago "Naranja" denda izeneko lekuan zabaldu dugu.

Euskaraldiaren bigarren edizioa da aurtengoa, madarikazio betean etorri zaiguna. Herri batzordea eratu eta otsailean egin genituen planak; ekainean berrekin genion lanari birusak eragindako zurrunbilo noragabea.

Badu 2020ko edizio honek berrikuntza aipagarri bat: konpromiso pertsonaletik kolektibora egin dugu jauzi. Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala eta kontzientea egitea eskatu digute, 15 egunetan. 2018ko edizioan, norbanakoei eskatu ziguten konpromisoa –Ahorbizi edo Belarriprest- rolak hartuta. Argi zegoen

"Konpromiso pertsonaletik kolektibora egin dugu jauzi"

urrats gehiago eta gehiagorekin egin behar genituela; norbanakoak aktibatzea derrigorrezkoa da, jakina, baina kolektiboetan bizi gara, komunitateetan... Beraz, herriko entitateengana (komertzio, enpresa, elkarte...) jo dugu Euskaraldian

parte hartu dezaten, herriari arnasa eta bizia ematen dioten lekuak baitira, sozializazioarako lekuak...

Ariguneak, euskaraz lasai egiteko guneak, eratu dituzte entitateek; beraz, ahobiziaz edota belarriprestak arituko dira/gara elkarrekin guneotan. Entitate bakoitzak barruko funtzionamenduari dagokion ariguneak (Barne arigunea) eta kanpora begirakoak (Kanpo arigunea) antolatu ditu. Adibidez, enpresa bateko zein elkarte bateko langile edo batzordekideek barne ariguneak osatu dituzte euren eguneroko lan dinamikaren harremanak euskaraz izan daitezela. Kanpo ariguneetan, oster, bezeroekin edota bazkideekin izango ditugun harremanak euskaraz izan daitezela bermatuko dugu. 107 entitatek parte hartuko dute Durangon.

Berbaro eta herri batzordea

Herri batzordeko dinamizatzaileak gara eta elkarlanean ari gara herriko beste eragile eta norbanako batzuekin. Euskaraldiaren aurreneko edizioan moduan, aurtan ere hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamika martxan ipintzeko eta euskal hiztunak aktibatzeke lanean ari gara. Birusak desitxuratutako planei eusten ahalegindu gara, eta nolabait ere, lortu dugu. Esan genezake kaleko ekitaldi ikusgarriak egitea baztertu egin dugula, baina entitateak erakarri ditugu, Euskaraldiko lokala zabaldu dugu, komunikazioa landu dugu, eta hainbat euskarri sortu eta hedatu ditugu.

Zailtasunak zailtasun, animatu gura zaituztegu Ahobizi edo Belarriprest izatera, bai ariketa egingo dugun 15 egunetan, bai aurrerantzean ere. Izena oraindik eman ez baduzue, hemen doa lotura: <https://izenematea.euskaraldia.eus>, egizue klik!

Asko gara euskarra jakin eta ulertzen dugunok, eta gehiago izango gara.

Lankide berria dugu: Izaro Etxegibel Soraluze

Amankomunazgoko euskara teknikari berria da Izaro Etxegibel Soraluze. Urria amaieran hasi da gurekin lanean, baina urtaril honetan ezagutu dugu guk, ordezkapen bat egiten izan genuen-eta. Lan berrira murgiltzen dabilen honetan, zelan dagoen galdetu diogu.

Elgoibartik etortzen da Durangora Izaro, eta bi herrietan euskarak antzerako egoera daukala uste du: "Elgoibarren biztanleen % 62 da euskalduna eta Durangon % 53, kontua da dakitenek hitz egiten duten edo ez. Han, hemen bezala, irakaskuntzatik gazte guztiak irteten dira euskaldunak, baina adinean gora doazen neurrian kaleko erabilera jaitsi egiten da eta ez da erraza horri aurre egitea. Hala ere, urte

batzuetatik hona, hobera egin duela esan-go nuke; dena dela, guztiok dakigun moduan, asko dago egiteko oraindik, bai han eta bai hemen".

Amankomunazgoko lana dela-eta, ikasi eta ikasi ibili dabil lehen asteotan: "Orain arte mankomunitateko euskara teknikari izan den Garazi Barrenetxeak txukun-txukun ordenatuta utzi dizkit berak egindako lanak; haiek irakurtzen jardun dut lehen egunotan." Euskara sustatzeko ekimen ugari daude martxan mankomunitatean, bai erakunde barnekoak bai herrietara begirakoak, eta bat nabarmenezkotan, "gaur-gaurkoz momentukoa delako", Euskaraldia aipatu du: "Kalean zein lanean euskararen ahozko transmisioa bultzat-

zeko lagungarria benetan". Mankomunitate ere batu da egitasmoa, entitate moduan, eta langileek interesa agertu dute: "Azaroa eta abendua artean egingo den ariketa puntual horri jarraipena ematea litzateke ideala."



Hirukoaren bigarrena



Martxan da Hirukoa lehiaketaren bigarren edizioa. Iaz ipini genuen martxan lehiaketa hau Berbaroren urteurrenaren harira egin genuen programazio bereziaren barruan, eta 25 hirukoteak parte hartu zutela ikusita, aurtengo ere lehiaketa martxan jartzea erabaki dugu.

Galdera-lehiaketa bat da hirukoa: hiru astez, hiru laguneko taldeetan hamabost galderako galdetegiak bete beharko dute parte hartzaileek aste bakoitzean. Galderak hainbat gairi buruzkoak izango dira: kultura, Durangoko aktualitatea, historia, hieroglifikoak eta abar. Lehiaketak dirauen hiru asteetan, astelehenero argitaratuko dira galdetegiok gure sare sozialetan. Hiru asteren buruan puntu gehien lortu dituen hirukoteak Errigorako otzara eder bat jasoko du saritan.

Aurtengo gainera, bizi dugun egoera kontuan hartuta, horrelako online lehiaketa bat egiteak aukera handiak ematen ditu, eta espero dugu parte hartzea igotzea eta etxeratze agindu sasoiotan eskaintza interesgarria izatea durangarrentzat.

Bestalde, iaz Hirukoa Gala ere egin genuen, Hirukoa lehiaketaren aurrez aurreko formatua, Plateruena kafe antzokian. Aurtengo ez dakigu oraindik egiteko moduan egongo garen, baina hori da gure asmoa.



Ezohiko saioa ezohiko urterako

Pandemiaren ondorioz gure proiektu asko moldatu behar izan ditugun moduan, Urteko Azken Bertso Saioa ere moldatu beharrean gaude. Osasun-neurriak direla eta, Plateruena Kafe Antzokiak bere edukiera 125 lagun ingurura mugatuta dauka orain, eta urteroko zita honetan 300 bat lagun elkartzeko izan gara. Hau dela eta, ahalik eta bertsozale gehienei saioaz gozatzeko aukera emateko, aurtengo bi saio egingo ditugu, bata bestearen jarraian, betiere osasun-neurriak gogortzen ez bada eta agintariek hala baimentzen badute abenduaren azken egun horietan.

Saio berezia izango da aurtengoa, beraz. Izan ere, Covid-19ak sortutako egoeraz gain, Plateruena Kafe Antzokia kooperatibak bere desegitea erabaki eta 2004an hasitako ibilbidea amaituko zuela adierazi zuen irailean. Abendu amaierako egunak izango dira orain arte ezagutu dugun Plateruena azkenak, eta, beraz, bertso saioa egitarau zabalago baten parte izango da.

Urte amaite artean Plateruena ekitaldi kulturaletarako bakarrik zabalduko denez, saiorako sarrerak Berbaroren bulegoan erosi beharko dira, eta betiko moduan, bazkideok prezio merkeagoan eskuratu ahalko dituzue.

Larrosa eta Arantza

Larrosa

2004an jaio zen Plateruena. Herritarren babesa izan du sorreratik gehiago. Herritarrei, borondatez lan egin dutenei eta langileei esker lortu da egitasmoa martxan jartzea eta horri eustea.

Urte hauetan guztietan euskara erdigunean jartzea lortu du. Horrekin batera, euskal kulturarentzat nazioarteko sortzaileekin konpartitu ahal izateko moduko guinea izatea lortu du, eta ordutik ere, herriko mugimendu eta elkarteentzako lanerako espazioak eskaini ditu. Hau guztia gutxi ez balitz bezala, kultur programa propioa izan du.

2020. urtea eta bere ibilbidea egitasmoz beteta bukatuko du Plateruenak.

Arantza geratuko zaigu

Euskara erdigunean jarri duen proiektua galdu izanarena. Euskal kultura nazioarteko sortzaileekin konpartitu ahal izateko guinea eta herriko mugimendu eta elkarteentzako espazioa desagertzearen pena.

Euskaratik eta euskarara kultur programa propioa duen espazioa agurtzearen mina.